

DONEJAKUE BIDEA CAMINO DE SANTIAGO

Barrualdeko Bidea **2A** El Camino del Interior

HERNANI TOLOSA

Km. 19,3 270m 4h. 30'



DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI



COMENDIOAK RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua -edo kreditu-bartela-, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Zure segurtasunerako, jarraitu seinale ofizialei. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei.

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.

Es aconsejable realizar el Camino en compañía.

No olvides documentación, credencial y dinero -o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.

Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.

Lleva calzado y ropa adecuada teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.

Por tu seguridad, sigue la señalización oficial. Si encuentras flechas amarillas que indican un trazado diferente, no las sigas.

Respecta el entorno y a los demás peregrinos.

Bidezatia / Tramo HERNANI > ANDOAIN



km 0 ... **HERNANI.** Udaletxeko arkuaren azpitik irtengo gara alde zaharretik. Eskailera batzuetatik jaitsiko gara eta, Santa Krutz santutxoaren ezkerretatik eta trenbidearen azpitik igaro ondoren, garai batean herriko ibai-portua izan zen Portu auzora iritsiko gara. Errekastoa zeharkatu bezain laster, eskuinera joko dugu, eta bi baserriren artean eta, geroxeago, saihesbidearen azpitik igaroko gara. Trenbidearen ezkerretatik jarraituko dugu Igarategi industrialderaino, eta ondoren, asfaltotik, bidegurutze batera iritsiko gara.

km 2,7... **URNIETA.** Eskuinaldetik, Urnietako hirigunera joateko aukera dago. Bideak zuzen jarraitzen du Erratzu industrialdean zehar, geroxeago eskuinera egiten du, eskailera batzuk igo behar dira, eta pasealeku batetik igoz irtengo gara industrialdetik. Azkenean, eskuinera jo eta errepidera iritsiko gara, jatetxe baten ondoan. Ondoren, ezkerrean jo eta Aranaztegi industrialderaino jaitsiko gara. Industrialdean zehar jarraituko dugu, eta azken industria-nabeen ondoren, ezkerrean egin eta antzinako Plazaolako trenaren ibilbidean sartuko gara. Ibilbide hori Andoaingo erromesen aterpetxean (Plazaolako aterpetxean) amaitzen da ia. Andoaingo kultura-etxearen aldean, La Salle etorbidetik Goiko plazara jaitsiko gara, elizaren eta Udaletxearen parean.

KMZ





GPX



Hernanitik irtetean, bi aukera ditugu: Oriako aldaera deituko dioguna (profil leunagokoa) eta Saiatzeko alternatiba (ederragoa, baina gogorragoa ere bai). Oriako aldaeratik jarraituta, Errege Bideari lotutako herri historiko batzuk zeharkatuko ditugu (Gaztelako lautadaren eta Europaren arteko lotura nagusia izan zen Errege Bidea hainbat mendetan). Aurrerabidearen eta industria-garapenaren aztarnak nabarmenak dira ibilbide honetan zehar.

Al abandonar Hernani, se ha de elegir entre la variante que desglosamos a continuación (que denominaremos la del Oria), con un arranque de suave perfil, o la alternativa de Saiatz, más hermosa pero, también, más exigente. Siguiendo la variante del Oria se atravesarán algunos pueblos históricos ligados al Camino Real, aquella senda que, durante siglos, fue el principal nexo de unión entre las mesetas castellanas y Europa. Las huellas del progreso y del desarrollo industrial serán más que patentes a lo largo de este recorrido.

19,3 km 270 m 4h 30'





EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Etaparen amaieran, merezi du Tolosako Erdi Aroko hiribilduan bertako babarrun beltz tipikoak dastatzea. Erromesik gozozaleentzat, beste gomendio bat: teilak eta zigarroak.



En el final de etapa, en la villa medieval de Tolosa merece la pena degustar unas alubias negras típicas de la localidad. Para los peregrinos más golosos, otra recomendación: las tejas y cigarrillos.



TELEFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Hernaniko Turismo Informazio Puntua Punto de Información Turística de Hernani	943 33 70 28
Andoaingo Turismo Informazio Puntua Punto de Información Turística de Andoain	943 590 409
Leitzaran Bisitarien Etxea (Andoain) Centro de Visitantes Leitzaran (Andoain)	943 300 929
Tolosako Turismo Bulegoa Oficina de Turismo de Tolosa	943 697 413
Donejakue bideen lagunen elkarteak (Gipuzkoa) Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Gipuzkoa)	943 427 281
Larrialdiak Emergencias	(112) SOS DEIAK

Bidezatia / Tramo ANDOAIN > TOLOSA

km 7,3 - **ANDOAIN.** Kale Nagusitik jaitsi eta, Leitzaran ibaia zeharkatu ondoren, Santa Krutz ermitara iritsiko gara. Zumea eta Aita Larramendi kaleetatik jarraituta irtengo gara Andoainetik, eta eskuinera joko dugu Isturizaga dorrearen ondoren dagoen bidegurutzean. Oria ibaia zeharkatu eta N-1 errepidearen azpitik igaro ondoren, Villabonara doan GI-3610 errepidetik jarraituko dugu. Kilometro eskasera, eskuinera egingo dugu Adunarantz, eta berehala ezkerrean doan bide bat hartuko dugu. Landa-bide batetik jarraituz, baserri batzuen ondotik igaroko gara, eta eskuinean utziko dugu herriko erdialdera doan bidea. Santa Krutz ermitaren ondotik igaro ondoren, bidegurutze bateraino jaitsiko gara berriz ere, eta Oria ibaia gaineko Antzibako zubia zeharkatuko dugu berehala. Era horretan, Villabonako udalerrira iritsiko gara Kaleberri kalean zehar.

km 13 - **VILLABONA.** Eskuinera joko dugu, eta Zubimusu zubira iritsi baino lehen, ezkerrean egin beharko dugu Kale Nagusian zehar. Kiroldegiaren paretik igaro ondoren, eskuinera egin eta Oria ibaia zeharkatuko dugu. Hurrengo kilometroetan, trenbidearekin paralelo doa ibilbidea, Oria ibaia ertzetako baratzetara eta larreen artean. Trenbide-pasagune bat zeharkatu ondoren, bi aldiz igaro beharko dugu trenbidearen azpitik. Ondoren, Alkizara igotzen den GI-3630 tokiko errepidea hartuko dugu. San Juan kaleak Anoetako plazara eramango gaitu, eta Hernialderaino igotzen den GI-3411 errepidea hartuko dugu bertan. Metro gutxi batzuetara, ordea, errepide hori utzi eta ezkerrean abiatzen den zementuzko bidea hartuko dugu. Trenbidearen azpitik igaro ondoren, GI-3650 errepidera iritsiko gara. Eguneko azken tartea bidegorriaren tarte berri batetik egingo dugu Tolosaraino, eta, bertan, alde zaharra zeharkatuko dugu Foruen plazara iritsi arte.



km 7,3 - **ANDOAIN.** Bajamos por Kale Nagusia y tras cruzar el río Leitzaran se llega a la ermita Santa Krutz. Salimos de Andoain por las calles Zumea y Aita Larramendi, girando a la derecha en el cruce posterior a la torre Isturizaga. Cruzamos el río Oria y pasamos por debajo de la N-1, para continuar por la carretera GI-3610, dirección Villabona. A poco menos de un kilómetro giramos a la derecha dirección Aduna, tomando enseguida un desvío a la izquierda. Por camino rural se pasa junto a varios caseríos y dejamos a la derecha el desvío al centro de la localidad. Tras pasar junto a la ermita Santa Krutz descendemos de nuevo hasta un cruce para atravesar enseguida el puente de Antziba sobre el río Oria y acceder de este modo al municipio de Villabona por Kaleberri.

km 13 - **VILLABONA.** Giramos a la derecha y justo antes de alcanzar el puente Zubimusu debemos tomar a la izquierda siguiendo toda la calle Mayor. Una vez pasamos frente al polideportivo giramos a la derecha para cruzar el río Oria. En los siguientes kilómetros la ruta discurre paralela a las vías del tren, entre huertas y prados de las riberas del Oria. Pasamos un paso a nivel y después se cruza en dos ocasiones por debajo de la vía férrea, antes de salir a la local GI-3630, que asciende a Alkiza. La calle San Juan nos guía hasta la plaza de Anoeta, para tomar allí la GI-3411, que sube hasta Hernialde. A pocos metros sin embargo lo abandonamos, para tomar el desvío a la izquierda, que por cemento y tras cruzar por debajo del ferrocarril, desemboca en la GI-3650. El último tramo de la jornada discurre por un nuevo tramo de carril bici hasta Tolosa y una vez allí, se atraviesa el casco antiguo, hasta llegar a la Foruen plaza.



KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

• GI-3610 errepidearen tarte batean (Andoainetik Adunarainoko tartean, alegia), kontu handia izan beharko dugu, ia ez baitago bazterbiderik. Tarte horretan, gezi horiak eta seinale ofizialak bat ez datozela ikusiko dugu. Gezi horiek errepidetik jarraitzen dute, eta seinale ofizialek, berriz, bazterbidea ahal dutenean uzten dute, eta desbideratu egiten dira Adunatik hurbil.

• En el tramo de carretera GI-3610 al salir de Andoain hasta la cercana población de Aduna habrá que extremar la precaución por tratarse de un tramo en el que no existe apenas arcén. En este tramo veremos que las flechas amarillas y la señalización oficial no coinciden. Las primeras continúan por la carretera mientras que la señalización oficial deja el arcén en cuanto puede y se desvía cerca de Aduna.

• Tolosan ez dago erromesen aterpetxerik, baina aterpetxe pribatu bat dago hirigunera iritsi baino 500 m lehenago. Halaber, zenbait turismo-ostatu daude erdialdean.

• En Tolosa no disponemos de albergue de peregrinos aunque encontraremos un albergue privado 500m antes de alcanzar el casco urbano y varios alojamientos turísticos en el centro.

www.euskaditurismo.eus



IKURRAK LEYENDA

Iturria Fuente	Erromesen aterpetxea Albergue de peregrinos	Ospitalea Hospital
Atsedengunea Area recreativa	Bestelako aterpetxeak Otros albergues	Medikua Servicio médico
Eraikin erlijiosoa Edificio religioso	Ostatu turistikoak Alojamientos turísticos	Farmazia Farmacia
Interes puntua Punto de interés	Diru kutxa Cajero	Turismo bulegoa Oficina de turismo
Jatebidea Restaurante	Denda Tienda	Informazio-gunea Punto de información